



BIDASOA HIZTEGIA

P

ozez beterik ikusi dut Irungo Udalak berriki ireki duen "Luma Liburuak" izendun saila eta lehen argitalpena Luis de Uranzu zenaren *Diccionario del Bidasoa* eskuratu ahal izan dut.

Bidasoa aldeko kronikagile apal bezain bikaina genuen Luis Rodríguez Gal (1894-1968), Luis de Uranzu izenordea erabiltzen zuena. Bere *Lo que el río vio. Biografía del río Bidasoa* (1995) norik ez du ezagutzen? Aspergaitza zentzuz eta taxuz eginiko liburu jakingarria, inguru hauetako historia eta folklorea ezagutu nahi dituenarentzat. Ikertzaile naiz kulturazale, Bidasoaren ibarrak miakatu nahi dituenarentzat oinarrizko liburua, noski.

Bidasoaz hainbeste arduratzen zen egile haren nortasunez zerbait jakin nahi duenak, bere idatzietatik aparte, jo beza Leonardo Urteagaren *Guía sentimental del Bidasoa* liburuaren 39. orrialdeti aurrera, han aurkituko ditu egileari buruzko berriak; gainera, liburu horretan bada bere artikulurik aski.

El Bidasoa aldizkariaren laguntzaileetarik handienetako izan zen bere bizitzan eta hor utzi zituen zernahitariko idazki oparoak. Hil baino lehentxoago plazaratu zuen, 1966. urtean, *Un pueblo en la frontera*. Hil ondotik, 1971an, ipui bilduma *Cuentos del Bidasoa - Bidasoako kondairak*, T. Hernandorena eta A. Irigarayren euskal itzulpenez.

Oraingo hiztegi hau ere oso interesgarria benetan. Ez da histegi arrunten erakoa, zeren hemen, hitz soilak ez ezik pertsonaia, toki, abere, landare eta abar orotarik bada alfabetaren ordenaz egileari Bidasoa ibaiaren inguruan iduritu edo bururatu zaionetik. Liburu honek erarik errazenean eskuratzen dizkigu antzinako historiatik garai berriak arterakoa, antropologia, toki-izen eta gertakariak, folklorea, botanika eta abar, orotariko hitzen ondotik berri jakingarriak agertuz.

Adibidez, Arditurri erromarrek landu zituzten meategien berriak eta han Thalacker-ek burutu zituen azterketak. Baina bere denboretan meagileek

zituzten ohiturak datoz *Lukainka* hitzean, *Pitxer* ordea neurtzaile gisa; eta oroi bi hitzok euskarara latinetik datozela. Ordutikakoak ote?

Bestalde, Andrearriaga, Jaizkibel, Beloaga, Bidasoa, ... lotzen ditu antzinako berri haiekin, toki bakoitzari arreta berezia jarriz. Carlos V eta Ferrerías-en, era berean, aldi modernoan berriak agertuz. Jicio hitzean norbere barnea zarraraz ikartzeko bezalako zigortze legea 1463. urteko hura.

Irungo Apellidos, Apodos eta beste, antropologia lanak ikertzeko aukerakoak dira. Guipuches (giputzak) jentilizioa ordea, berak uste baino hiritar deitura zaharagoa da, zeren antzinatik datoz

Navarro, Vizcaino, Alava eta antzerakoen kideko Iputxa eta Gipuzua, behinik-pehin Lapurdin eta Bizkaian gipuzkoar jentiliziotik deiturara igarota. Hortaz aspaldi idatzi nuen *Egan* aldizarian, zeren gaur oraindik bizirik aurkitzen bai da (ikus, *Egan*, 1984, 3-4 zenb. 144 or. eta 5-6 zenb. 146 or.).


Horrez gainera pertsonai ospatsuei ere tokia ematen dio. Esate baterako, Lakoizketa nor zen azaltzen digu eta argi dago egilea botanika hitzez ari denean haren lanez jabetua zela; horregatik, landara hitzak latinezko izen teknikoak gaineratuaz jartzen ditu. Kaudan hitzik ez dator, baina Madroño delakoan itzulpen hori ematen dio, honako bertso hau adibidetzat jarriz:

*Kaudan, kaudan, kaudan
Duenak ez duenari eman.*

Esan nezake Jaizkibelgo itsas-hegalean oraindik badirela kaudan zuhaitzak, Bizkaiko Enkarterrietako mendietan ezagutu nituen lehenbizikotz eta han *borto* izena ematen diote.

Leku-izen edo toponimo zaharrak hor datoz, A letradunak soilik aipatuko ditut, Amuitz, Argelot, Arritxuri, Artaleku, Asturiaga eta abar, bakoitzeko historiaren berri eta toki bera zahatz adieraziz. Baina, inoiz irakurlea zertxobait harritzekoak ere bai, adibidez, Erreta=Dunboak, gaur nik "Las gemelas" bezala entzun ditudan Hondarraizko bi harkaitzak.

Era berean, hidronimiaz ere sail ederra dakar.





Maiz, azpikaldean oharrak gehitu zaizkio. On dira zuzenketa edo argibide oharrok. Oroi Garibaik XVI.mendean Behobia jartzen zuela gaur egun Behobia edo Behobi erabiltzen denari, -ibia horrek, atzizki bezala badu zer ikusirik Hondarribia eta Urdanibiarekin. Baina, bakoitzari berea ematerakoan egoki legoke, ikertzaileen lagungarri, zuzenketen edo oharren arduradun zein izan den jakitea.

Arri-mimarriya hitzean errepikapena nabari da, mimarria soilik aski zen, baina euskara galzorian den Irun bezalako hiri batean hizkuntzen edo konzeptuen aldakuntzaren lekuko dugu, Valle de Aran bezalatsu, aran beste gabe erdarazko *valle* denezkero, Endarlatsa eta Endara-erreka esan nahi berdinekoak dira, *latsa* euskal forma zaharra denez eta *erreka* geroztik laninetik, sartua. Mimarria ordea, herbestetik etorri ginenontzat hitz bitxia da, zeren Bizkai aldean *arearria* eta Gipuzkoan *hondarrarria* bezala ezaguna zaigunez.

Borona, oharrak dion bezala, euskaraz ez da erabiltzen, bai ordea artoa="maiz", zein "pan de maiz" esateko; taloa beste gauza bat da, arto-irinez eginarren. Gainera, jatorriz, artoa "mijo" zen, baina Mexikotik "maiz" sartu zenean "mijo"ren lekua hartu zuen jakitzat eta era berean izen zaharra iraunarazi. Era hortako huts egiteak, huts egiteak baldin badira, parkamena merezi dute.

Abere izenetan ezaugarriak dira Antxeta eta Kaio bereiztea. Corrocón, korkoin ordea, Bizkai-Gipuzkoako kostalderik gehienean *lazuna* bezala ezagutzen da.

Kanta, dantza, haur-jolas eta esaldirik bada liburuan zehar. San Marcial zein Guadalupe bere historia eta ohituretan. Donar hitzean ordea folklore aztarnak eta Lamia inguru hauetako mitolojian ez ezik armarrietan kokaturik arki ditzakegu.

Olentzero ezin falta. Aurtengo urtearen haseran Bizkaiko erdal idazle batek zion, mito berri bezala abertzaleek oraintsu asmatua dela, ohitura zaharretan sustrairik gabea. Baina Luis de Urantzuk aipatzen digu, zehatzako eta agiri gehiagoz oraindik *Lo que el río vio* liburuaren 423-426. orrialdeetan irakun dezakegu, non aipatzen duen 1625.urtean Isastik *Compendio Historial de Guipúzcoa* liburuan dakarrela. Nahi duenak ikus beza Isastiren liburu hortan XIII. kapituluan, 166. orrialdean aurkituko du. Gainera, XV. mendeko Marot frantsiar idazleak erabilia zuela Mourlane Michelena idazleak omen zion. Pundu honetan konturan hartzekoa da Emilio Jose Esparzak eginiko lan bikaina, *Noticia curiosa sobre Olentzero en la Navidad de Lesaka*, inguru honetako ohitura zaharren ezaugarri. hain zuzen, 1975. urtean, Imanol Laspiur hizlariak berak ezin zuenez eskatu zidan bere htusunea betetzeko Irungo "Oargui"n neronek Olentzerori buruzko hitzaldia ematea eta hala bete nuen, ezer nereko asmakizunik gabe, Esparzaren lanean oinarrituz eta gainerako agirion berri emanaz. Ez nuen, beraz, ezer asmatu. Gero eskualde zabalagoetara Olentzero eramateak ez du esan nahi Euskal Herrian sustraitu gabeko usarioa denik.

Ez noa gehiago luzatzera. Diccionario del Bidasoa liburu honekin ez dago aspertzerik eta bai gure ingururen jatorriaz ikastekorik.

JUAN SAN MARTIN

OPARIAK
eta
ARTISAUTZA

XUME

C/ Zuloaga, 16-18
Telefonoa 64 42 70
HONDARRIBIA

JON ALZAGA

URDAI-AZPIKOAK
HESTEKIAK
GAZTAK
FOIES
EDARIAK

San Pedro Kalea, 25 - Telf. 644470
HONDARRIBIA



eukeni
optika

- * BEGIEN AZTERKETA
- * KONTAKTUZKO LENTEAK
- * BEGIEN ENTRENAMENDUA
- * GRADUAZIOA, KONTROLA
ETA BERRIKUSKETA
- * PRESIO INTRAOKULARREN
AZTERKETA

SAN PEDRO, 57 - TEL. 64 38 05